

BALIABIDEAK

Gure aplikazioa sortu eta ondo funtzionatzeko, hainbat baliabide beharko ditugu. Baliabide hauek, aplikazioaren garapenerako eta mantenurako garrantzitsuak izango dira.

Eduki baliabideak bere garrantzia dute ere. Aplikazioaren mamia erabiltzaileek **sortutako apunteak**, eta ordenatuta, eguneratuta eta kalitatezkoa dela ziurtatuko dugu.

Bestetik baliabide **teknologikoak** inguratu beharko ditugu, Gure lana lau ordenagailuren artean egingo dugu, kasu honetan bat bakoitzarentzat, eta behar izanez gero, gure telefonoak erabiliko genituzke. **Gure zerbitzuaren oinarria aplikazioaren softwarea da**, hari esker, programazioa, eguneraketak eta akatsen konponketak daude. Beste aldetik, hodeiko biltegiratzea garrantzitsua da, ikasleen apunteak eta datuak gordetzeko eta milaka erabiltzaile alde berean kudeatu ahal izateko. Gainera, segurtasun-sistemak datuen babesa, pasahitzen eta erabiltzaileen pribatutasuna bermatuko du.

Gure lana egiteko **coworking gune batera joango gara**, Donostiako Kultur Etxera (Egia), adibidez.

Azkenik argi dago gure proiektua aurrera eramateko baliabide ekonomikoak beharko ditugula. Alde batetik, diru-inbertsioa aplikazioa garatzeko, publizitatea egiteko eta mantentzeko behar den hasierako kapitala da, gure artean egindakoa. Aurretik aipatutako langileen soldata bermatzen duen diru kantitate bat beharrezkoa da ere.



Jende asko lanean ari den coworking lanerako gunea.

Argazkia-hemendik: <https://aticco.com/blog/espacios-flexibles-versus-oficinas-tradicionales/>